


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko maiatzak 21 / III. urtea / 76. zenbakia

Tutera merezi zuten

Berrehun inguru dira, ikasketadunak, langileak, eta askatasunaren egarriz. Baina magrebiarrak, algeriarrak gehienak. Uzta garaian heldu ziren Erriberara, Tuterara, bertako gutxik nahi duten lana egitera, eta bertatik ez dute oraindik aldegin, ez baitute nahi, besteak beste. Hasieran harrera ona izan bazuten ere, zenbait txabolatan izandako lapurretak beraiei egotzi, eta giroa gero eta nahasiagoa da bertan. Hainbeste, ezen joan den astean Udalak talde guztiak bildu eta arazoari aurre egiteko neurriak aztertu zituen.

Batzuek arbuio hitza aipatzen dute, besteek, ezezagunari beldurra. Baina arrazakeriaz ere hasiak dira kezkatzen. Bati baino gehiagori debekatu egin diote zenbait tabernatan sartzea, eta pisuak alokatzeko arazo franko dituzte. Lanean, jakina, gutxiago kobratzen dute. Eta bertan gizarteratu nahi dute, hala ere. Ez dute hori merezi.



Zubian barna



BINGEN AMADOZ

Hauteskunde garaian gaude bete betean. Botoaren chizaldia hasia da gauerdian eta hamabost eguneko epean gurutzatzen egingen zaizkigu belarrietan batzuk eta besteek elkarri botako dizkioten loreak. Oraingo honetan, etsai amorratuak direnak lagun egingen dira bozketaren emaitza jakin ondoren. Baina bitartean, batzu besteengandik bereiztu egin beharko dira, bezeroek, hoberenak zeintzuk diren jakin dezaten.

Arestian entzun ditugu PSOE eta UPNkoak sekulakoak eta bi esaten elkarren kontra. Handik gutxira bildu, ados jarri, arazo handirik gabe eta laister ahantzirik zeuden esandako guztiak. Irri egin! klik! argazkia eta aurrera. Hurrengorarte. Bakoitzak pastelaren puxka hartu eta denak kontent. Jakina, baliabideak etzaizkie falta irabazle izan eta suertatuko direnei. Komunikabiderik boteretsuek, diruak nahi adina dituzte, hiritar siniskoren muinetan sartzeko, interesatzen zaizkien mezuak. Hautagai horiek ongi ikasiak dituzte hitzarekin egin behar diren moldaketa komentzigarriak, arrazoi nagusiak, arerioen kontrako erantzun egokiak, esaldi eginak eta ahotsaren inflexio aproposak.

Hala ere, Aznarrena entzunda, kosta egiten zait ulertzea nola sor dezakeen PPEko lider horrek entusiasmo izpirik haren inguruan. Hitz jario aspergarria dauka benetan gaztelarrak. Ahotsa gainera, lagungarri ez giza-joak eta bere itxura ez daiteke arrotzago izan euskaldun batentzat. Hori bezalako sudur-azpiko bat noiztik da erakargarri gure lurralde hontako jenderentzat? Ba, hala eta guztiz ere, ba dira, bai, gure artean, itsu, gor eta gehiago izateko prest daudenak. Aurreko larunbatean, hor zituen Aznarrek Iruñeko Anaitasunean, bere aldeko helduak eta kezkarriago dena, baita kumetxo kopuru dexente ere, Opuseko unibertsitateko markaz ikututa.

Datorren ostiralean etorriko zaigu beste arrai gizona, biboterik gabe baina guretzat, bere arerio zuzena bezain arrotza. Toki berean bilduko ditu Felipek aberats berriak, haren partiduari esker mailaz igo direnak eta oraindik ere eskarmenturik hartu ez dutenak. Morala badute horiek ere!

Amerikarren moduko hauteskunde zirkoak bere karpa handi-zoragarria eraiki du gure plazaren erdian, muturrean bi koloreko ikurra jarri. Bere menpekoak ez garenok aukera gutxi geratzen zaizkigu. Batzuk emanen diote bizkarra gezur hutsaren erakusketara dugun muntai horri eta besteok zirko-karpa, lurrarekin lotuta mantentzen duten sokak moztzen saiatuko gara.

Gure aukerak

Villanua-Espata

Asteburu honetan Euskal Herria utzi eta gertuen ditugun mendietara joango gara, Huescako Piriniotara alegia. Ibilbidea ez zaio ezagun egingo askori, baina bai ordea hasten den hiria, Villanua, bertara hurbiltzen baita urtero Osasuna futbol taldea bere denboraldia behar bezala prestatzeko. Toki aproposa eta lasaia izango da, beraz.

Gu ere igoera bertatik egingo dugu. Horra joateko Jacara, daraman bidea hartu behar dugu, eta horretarako, beti bezala, Nafar Mendizale Federakundeak autobus geltokitik aterako den autobusa prestatu du, baina oraingoan 7etan aterako da, ohi baino lehentxeago.

Jacara heldu orduko, Astun eta Candanchurantz doan bidea hartuko dugu, eta Canfracera iritsi baino lehen Villanua herria aurkituko dugu bidean, 953 metrotan. Igande honetako ibilbidea jipoi ederra izan daiteke askorendako, mila metrotik gorako desnibela gainditu behar dugu eta. Gogorra benetan, baina ederra, pena merezi baitu.

La Espata, gaur dagokigun tontorra zirko eder batean dago kokaturik. Gailur guztien artean Collarada da gehien ezagutzen duguna, 2.886 metrokin. Zir-



koaren ezker aldean dago. Eskubialdean Villanua basoa dugu. Gu, Collarada eta Villanua-ko basoaren artean igoko gara, eta bidea, hain zuzen ere, Villanua-ko amildegitik doa. Piskanaka joango gara igotzen desnibela handia baita. Pinudiak eta koniferak dira gehien azalduko zaizkigun zuhaitzak. Pagoak, haritzak eta hostoak galtzen dituzten zuhaitz horietakoak, baina, ez dira izaten, hotz handiegia

baitago hemen. Zirkoaren oinarrira heldu ondoren, azken aldapa geratzen zaigu, tontorre-raino heltzeko. Aldapa aldapatsua, benetan. Hala ere, goitik ikusten denak merezi du, benetan.

Alde batetik, igo dugun amildegia izugarria. Collarada aurre-aurrean, Peña Somola, La Ralla, Peña Nereva, eta beste aldean, Tena harana. Ondo eginez gero, primeran.

ASTEKO PERTSONAIK



Pello Mariñelarena
Euskal preso

Pasa den larunbatean hil zen Parisen Pello Mariñelarena, Etxarri-Aranazko euskal preso. Apirilaren 30ean La Sante kartzelatik hiltzorian atera zuten, Clamart hiriko ospitalera eramateko, eta han zegoela hil zen. Oraindik epaiketaren zain zegoen Sakanako preso hau. Otsailetik gaizki zegoen baina medikuek ez zioten bere gaixotasunari buruzko azalpenik eman, eta bere osasun egoerak okerrera egiten zuen egunetik egunera, arrera berezirik jaso gabe. Bere familiako kideek azaldu zuten, azkenean, beste presoen eraginez ospitalera eraman zuten, eta Arreta Intentsiboen unitatean sartu. Berria zabaldu bezain laster, mobilizazioak hasi ziren Euskal Herri osoan, heriotzagatik protestatzeko. Barrikadak, manifestazioak, kontzentrazioak, eta abar.



Fernando Arretxe
Pilotaria

Gaur jokatu du Fernando Arretxek bere lehen partidua aurtengo manomanista nagusiko txapelketan, Joxean Tolosa Amezketako pilotariaren aurka. Jakina denez, Tolosak lau tantutan utzi zuen Patxi Eugi, honek eskubiko eskua gaizki baitzuen, eta orain Arretxeren txanda iritsi da. Materiala hautatu zuten eta bi pilotariak pozik geratu ziren, kantxan ikusi beharko da ordea, poztasun hori. Biak atzelariak, biak pilotari onak, aurrez-aurre arituko dira, eta indarra nagusituko da Bergarako frontoian. Arretxek berak horrela adierazi zuen, arerio gogorra izanen duela esanez, «nik uste dut eutsiko diodala. Kontrario ona da, defentsa ona du eta partido gogorra egingen dugu. Bi atzelari dardenean eta biek eusten badute partidu gogorak izaten dira».



Elena Etxalar
AEK-ko Nafarroako arduraduna

Lehenengo hiruhilabetekoan bezala, bigarrenean ere diru murrizketak izan dituela salatu du egun hauetan AEK-k. Administrazioak 3.500.000 milioi pezeta kendu dietela zioten arduradunek, eta hau dela eta, pasa den asteartean konzentrazio bat burutu zuten ikasle eta irakasle batzuek Diputazioaren aurrean. Kenketa hauen arrazoia, beren ustez, HEA arautzen duen Dekretoaren aplikazioa izan da, ez osotasunean, EGA tituluar dagokiona baizik. Izan ere, AEK-koek askotan EGA titulua ez duten irakasleak erabiltzen dituzte, maila nahikoa izanez gero, baina, beraiek ziotenez, «hau Administrazioan ere gertatzen da, beraz, zegotik eskatzen digute guri haientzat ere betezinak diren baldintzak?».

ERAKUSKETAK



Paco Ocaña aragazkilariaren erakusketa zabalik dago Nafarroako Museoan, datorren maiatzaren 30a arte. Argazkietan Nafarroako kulturaren ezagunak diren pertsonaien argazkiak ikus daitezke.

Margo eta Marrazki erakusketa prestatu du aurtengo Nafarroa Oinez taldeak, maiatzaren azken hiru asteburueterako. Altsasuko Gure Etxean izanen da, eta Sakanako hamar artisten lanak ikusteko aukera dago. Ana Pellicer, Jesus Ignacio Miguel, Pello Mariñelarena, Diego Pino, Javier Gorriti, Jesus Tovar, Koldo Amanz, Arantxa Izagirre, Manolo Lijo eta Asun Goikoe-txea artistek parte hartuko dute.

MUSIKA



Ganbara musika folk taldea arituko da gaur ostirala, maiatzak 21, Zizur Nagusiko Kultur Etxean, 22.00etatik aurrera. Herriko udaletxeak antolatuta, hilaren ostiral guztietan ekitaldiren bat badute, sarrera dohainik delarik.

Mikel Markez kantautorea eta Leitzako folk taldea arituko dira gaur, maiatzak 21, Leitzako zinemaren, XV. Aste Kulturalaren edizioan. Kantaldia gaueko 22.30etan izanen da, sarrera dohainik, eta horren aurretik, arratsaldean, haurrentzako jolasak eta txokolatea izango da herriko plazan.

BERTSO SAIOAK



Bittor Elizagoien eta Manolo Arozena bertsolari naparrak arituko dira bihar larunbata, maiatzak 22, Irurritako plazan eta ostatuan. Emanaldia eguerdian hasiko da.

Xabier Silveira, Imanol Lazkano, Iñaki Murua, Aitor Telletxea, Iratxe Ibarra eta Iñaki Olaetxea bertsolariak arituko dira bihar, maiatzak 22, Lesakako pilotalekuan, herriko Euskara Batzordeak antolatutik. Gaijartzailea Estitxu Fernandez izanen da.

ANTZERKIA



'Argirik piztu gabe' izeneko antzezlanak aurkeztuko du datorren asteartean, maiatzak 25, Bederen Bat taldeak. Emanaldia Iruñeko Gaiarre antzokian izanen da, arratsaldeko zortzietatik aurrera.

AHAZTU GABE!

LARRAUN bailarako ardi-bideak ezagutzeko mendi ateraldia bat antolatu du datorren igandeko 'Nafarroako ardi-bideen Lagunen Elkarteak'. Ateraldi honen helburua zonaldeko ardi-bideak indartzea eta berreskuratzea da. Goizeko 9.30etan hasiko da Azpirozko pilotalekutik aterata, handik, Pagozelaiteira, Guratz, Uitziko gaina, Santa Engracia baseliza, Aldatz eta gero Lekunberrin amaitu. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, ibilaldiak 20 kilometro izanen ditu.

Bertakoak ez direnek parte har dezaten, Iruñetik La Roncalesa autobusa aterako da goizeko 8.30etan, baina txartelak alde aurretik hartu behar dira azaldu zuten antolatzaileek. Itzultzeko ere La Roncalesaren zerbitzua egonen da.

Ateraldi honetaz aparte, gaierekin zerikusia duten beste ekitaldi batzuk izanen dira egun hauetan Lekunberrin. Igandean maiatzak 23, arratsaldeko 18.00etatik gaueko 21.00etara ardi-bideei buruzko erakusketa bat zabalik egonen da herrian. Maiatzak 22, 'Ardi-bideak Nafarroan eta Larraungo Probintzietako Ardi-bidea' izeneko erakusketa zabalduko da Lekunberriko Mitxasenea Kultur Etxean.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarriketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

'ZOKOBETAILU' Euskalerrira

Irratiko gaurko saioan Ganbara musika folk taldeko kide bati elkarriketa egingen diote, bere egitasmoak ezagutarazteko, eta taldeko zenbait informazio eskaintzeko. Ostiraleroko bezala, 'Estellerriko buru-nahasiaren hitza', Jon Alonsok egindako burutazioak entzuteko aukera egonen da, eta gero, nola ez, abesti eskainien txokoa. Ez ahaztu, 'Zokobetailu' saioa goizeko 10.00etan hasiko da.


Bertsolari gazteen saioa

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Joan den asteko ostegunean, hilak 13, ospatu zen Etxarri-Aranatz Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren bigarren kanporaketa, bertako frontoian. Aurrekoan bezala, giro ederra eta bertsolari gazteak entzuteko parada, bai bat-batean, bai lau oinak emanda baita bertso zaharren kantu lehiaketan ere.

Bertso idatzietan 4. mailan Amaia Reparaz, Izaro Arakama eta Aitziber Zeberio osatzen zuten taldea nagusitu zen, 'Sorgin bat ikusi dut' izeneko lanarekin. Ondoren Ines Reparaz gelditu zen. Bostgarren mailan Edurne Beltza izan zen hoberena, 'Igandean zer egin' bertsoarekin, eta ondoren Iñaki Mendinueta gelditu zen. Seigarren mailan Oihana Gallok irabazi zuen, eta ondoren Arantza Flores eta Maite Goikoetxea gelditu ziren.

Zazpigarren mailan Maria Dorronsoro izan zen nagusi, 'Sorgin bat' izeneko lanarekin, eta ondoren Izaskun Razkin eta Patxi Andonegi sailkatu ziren. Zortzigarren mailan Nerea Uztarro izan zen garaile, 'Eskalea'



Oskar Estanga, Mikel Mundiñano eta Josu Etxanobe.

MANU GOMEZ

lanarekin. Horrekin batera Bertso Zaharren Kantu Lehiaketa izan zen Etxarri, eta bertan Altsasuko Iñigo Aritza ikastolako 7. mailakoak nagusitu ziren, 'Solferinoko itsua' bertsoarekin. Atzetik, Andra Mari ikastolakoak, 'Orain mila urte-rekin'.

Txapelketa hauetan bat-bate-

koa izaten da lehiaketa sonatuen, eta lau oinak emanda (8. mailara arte), Aritz Satrustegi arruazuarra izan zen garaile, lan dotorea eginez. Bere atzetik, berdindurik, Aitziber Larraza eta Maria Goikoetxea.

Eta bat-bateko lehiaketan Oskar Estanga nagusitu zen, Mikel

Mundiñano etxarriarra eta Josu Etxanobe arbizuarraren aurretik. Gogoratu behar da txapelketa honetako partaideek Beran jokatu den finalerako txartela zutela lehiari, beste kanporaketetan aritutakoekin batera. Elizondon, aurreko kanporaketan, alegia, Estitxu Arozena nagusitu zen.



IRURITA eta Urdazubiko bestak ospatzen ari dira egunotan giro apartaz. Urdazubin asteazkenean hasi ziren, txupinazoa eta afari batekin, eta ohizko txuritabeltzarekin. Iruritan ere asteazkenean izan zen besten hasiera, eta gaur haurrenako oilo jatea izango da eguerdian, Gure Kayola elkartearen. 21.30etan mutildantzak izango dira, eta 22.00etan Tapia eta Leturiarekin kontzertua. Larunbatean zikiro-yate izango da, eta Arozena eta Elizagoien bertsolarien jostatuko dute bazkalondokoa. Etzi, igandea, Euskal Herriko Txirindulari Txapelketa jokatu da, jubencil mailan, eta 18.00etan Mindegia eta Arrozpide aizkolarien arteko desafioa izango da plazan. Gauetz, Otsagiko dantzarien ekitaldien ondoren, mutildantza, eta besten amaiera.

GARESen euskaraz matrikula diren haurren kopurua franko igo da, bertako hizkuntz teknikariak txosten batean azaldu duenez. Egun 45 haurrek ikasten dute D ereduan herrian, eta hurrengo urterako bertako eskolan orain arte egin diren matrikula eskaeretan, 23tik 10ek aukeratu dute aipatu D eredu. Kopuru politik eta itxaropentsuak, dudarik ez.

Bera

Udaberri sariak banatu zituzten Urruñan

P.U. / IRUNEA

Pasa den ostiralean zabaldu zituen ateak Urruñan Grand Prix Udaberri izeneko Nazioarteko I. Erakusketak, Berako Gure Txokoa Elkartearen laguntzarekin. Bertan mota guztietako estilo eta materialetako pintura eta eskulturak izanen dira ikusgai hilaren 31 arte. 98 pintore eta 16 eskultore, frantziarrak, espainiarrak, holandarrek eta indiarrek, nahiz eta ordezkari handiena Euskal Herrikoa izan. 137 koadro eta 17 eskultura ikus daitezke Lapurdiko herriko Posta Erakustokian. arratsaldeko 3ak eta 7ak bitarte.

Rene Paul Gelos ziburuarra izan da lehendabiziko sari honen antolatzaile nagusia, bultzatzaile eta zuzendaria, eta Urruñako erakundeek hartu dute parte zuzenean antolaketan. Sariak ere banatu ziren, eta pintura arloan lehenengo saria Gasteizko Simonet Arroyok eskuratu zuen. Bigarrena Abrisketa donostiarra eta atzetik Gorostidi elizondarra eta Sargos Goikoetxea baionesa gelditu ziren, Aipamena merezi zuen Garai arizkundararen lanak.

Mutiloagoiti

Atzo hasi ziren festak

P.U. / IRUNEA

Atzo hasi eta igandera arte iraungo duten festek bihar larunbata eta etzi izango dituzte egun nagusi, baina gaur ere izango da zer ospatu. Atzo gaueko 20.00etan bota zuten txupinazoa kontzejutik, eta ondoren Arangurengo gaiteroek lagunduta erraldoi eta kilikien konpartsen ibilaldia izan zen. 21.00etan aperitibo izan zen elkarte aretoan.

Gaur arratsaldean hasiko da Udalak antolatutako egitaraua, haurrentzako ginkanarekin (jokoak, lehiaketak eta askaria), 18.00etatik 20.00etara. Ondoren, 20.00etatik 22.00etara, Opipia orkestrarekin dantzaldia izango da, eta bukatzean, zezen-suzkoa. Gauerditik aurrera, dantzaldia berriro orkestra berberarekin, eta 4.30etan, herriko 'pipoteek' antolatuturik, txistorrada izango da.

Bihar, larunbata, 10.00etan izango dira txarangen dianak, eta eguerditik 14.00etara haurrenako parkea: 'Pumuky II'. 14.30etan herriko bazkaria izango da, eta 16.30etan Antzerki kafea, Trokolo taldearekin. 'Fresco y del tiempo', antzezlanaren aurkeztuko du. 18.00etatik 20.00etara



Jaien garaia heldu da.

haurrenako parkea berriro, eta 20.30etatik 22.30etara Scana orkestrarekin dantzaldia izango da. 22.30etan zezen-suzkoa, eta letatik 7etara, gaupasa.

Igandean amaituko dira festak, eta zortzietan izango diren dianen ondoren, 10.00etan, Arangurengo gaiteroek lagunduta

erraldoei eta kilikien konpartsa-aren ibilaldia izango da. Eguerdian meza nagusia, eta plater tiroketa, eta 17.00etan, haurrentzako antzerkia, Trokolo taldearekin. 18.30 etan herri kirolak izango dira, Iñaki Perurenarekin, eta ondoren, musika, zezen-suzko eta festen amaiera.



BARAÑAIN dugu aste honetako askara botatzeko merezidun bakarra, ondo merezita gainera. Izan ere, aste honetan bertako taberna batean Senegaleko saltzaile batek jasandago jipoien-gatik epiatu dituzte lau gazte. Fiskalak 20 eta 30 egun bitarte eskatzen du haiendako, baina hauek ukatu egin zuten leporatutakoa, beren buruen defentsarako izan zela esan baitzuten. Tabernan zeuden lekukoek, baina, garbi azaldu zuten istiluen eragileak gazteak izan zirela. Polizia heldu zenean saltzailea lurtean zegoen, bazter batean, lau gazteek aulkien jotzen zuten bitartean.

Eta bertako udalan ere kulebroi baten antza hartzen ari dira alkate ohiaren kontrako mozioa eta ondorioak. Clavero bota ondoren, Olloki sozialistak hartu zuen udalaren aginteak, baina Nafarroako Epaitegi Gorenak aldaketa ez zela zilegi izan esan ondoren, dimisioa aurkeztu behar zuela ean zuen ohiak. Oraingoak, baina, epaiketa benetan indarrean izan arte ez duela dimisioarik aurkeztu esan zuen. Lotsagarria.

Herriak ez dira arrazista horretarako parada izaten duten arte, diote gai honetan adituek. Eta esperientzia horrela erakusten ari da, Tuterera aldera uzta garaietan lan egiten duten magrebiarrek gero eta egoera zailagoa pairatzen ari baitira. Gehienak algeriarrek, arazo politikoak direla eta handik alde egindakoak, harrera ona izan zuten hasieran, baina egoera mikaztu eta nahasi egin da azken urteotan, inguruetan izandako lapurretak direla medio. Oraindik frogatuta ez badaude ere, magrebiarrei leporatu zaizkie ia denak, eta hortik aurrera elkarbizitza franko txartu da Erriberako hiriburuan. Pisuak alokatzeko arazoekin, lanean txarki ordainduta, baztertzen hasiak dira taberna edo dendetan, eta pub batzuetan galerazia dute dagoeneko sartzea. Jipoiak ere izan dira tartean, baina hala eta guztiz ere, Tuteran inon bezalako harrera aurkitu dutela diote haiek. Egoera oraindik ez da larria, baina arazoa korapilatsuegia dela onartzen dute denek. Arrazakeriaren lehen izpiak Euskal Herrian. Izpiak izanik ere.

ALBERTO BARANDIARAN / TUTERA

Arazoa Tuterera inguruko txaboletan izandako lapurketekin hasi zen. Ugaritzean, kaltetuen talde bat sortu zen, eta horrekin batera, zenbait zurrumuru zabaldu ziren hirian zehar: börtxaketak, istiluak. Magrebiarren kontrako psikosia ziztu bizian hedatu zen, eta harrera ona izatetik nonnahi baztertuak izatera pasatu dira.

Caritas da Tuterako etorkinekin harreman zuzenena izan duen taldea. Hasieran, heldu zirenean, talde honek dituen zentroetara azaltzera ere ez omen ziren auzartzen etorkinak, eta haien bila joan behar izan zuten, zerbait behar ote zuten galdezka. «Gero, eskatzen zuten guztia ezin genie-la eman esan behar izan genuen», diote. Caritasen arazoaren larritasunaz ohartzen hasiak ziren aspaldian, aurreko etorkinekin arazoak, larriak izanda ere —portugaldarrei txabolak erre zizkieten urte batean, eta alde egin behar izan zuten—, ez zirelako izan, inondik inora, oraingoen tamainakoak.

Duela bi urte heldu ziren Tuterara magrebiarrek —gehienak algeriarrek, baina baita marokkoarrak eta senegaldarrak ere—, eta uzta garaian etortzen ziren beste langileak ez bezala, bukatzean gelditzea erabaki zuten, hirian jaso zuten harrera ona zela eta. Uztaroa berriro hasita, ba-

tzuek lana aurkitu zuten, eta beste batzuek ez. Eta orduan hasi ziren lapurketak, eta istiluak, giro nahasia sortu arte.

«Haiek arbuatuta sentitzen dira» azaltzen du Juan Jose Valencia Caritaseko kideak, «gero eta toki gehiagotan —tabernak, diskotekak, supermerkatuen batean ere— ez baitaie sartzen uzten. Gainera, jendea ere kontra jartzen ari da, ustezko bortxaketa, lapurketa eta abarren zurrumuru faltsuak zabaltzen ari baitira». Izan ere, duela gutxi magrebiarrek egindako bortxaketa baten berri zabaldu zen, baina geroago ziurtatu ahal izan zenez dena gezurra izan zen. Udaltzaingoarekin ere istiluak izan ziren duela bi larunbat, magrebiar bat ospitalera eraman behar izan zutenean, udaltzainek emandako jipoiengatik. Eta, denen atzean, lapurketak, eta arazoaren globalizazioa. «Orain denak dira gaizkileak, eta arazo guztiak beraiek sortzen dituzte», diote Caritasen.

Arazoak ez dauka konponbide erreza, ez horixe. Gehienak legez kanpokoak dira, ez baitaukaite bertan lan egiteko edo bizitzeko baimenik, eta 60 batek irekita daukate dagoeneko kanporatze-ko espedientea.

Hala ere, horrek, praktikan, ez du ezertarako balio, dokumentaziorik gabekoak izanik beren herrialdeek ez dituztelako onartzen. Eta garrantzitsuena, haiek ez dute itzuli nahi.

«Hemen gelditu nahi dute», azaltzen du Mirian Caritasekoak, «Algeriako egoera izugarri latza delako. Hemen ez dute, askotan, ez urik ez leihorik, baina han bizi dira 14 pertsona etxe batean, guk jasan ezingo genituzkeen baldintzetan. Eta han ez dute etorkinunik. Hemengo kartzela nahia-go dute hango askatasuna baino».

Eta behar ere, jendea behar da Tuterera alderako. Etorkin hauek inguruko Lanpostu Institutu Nazionalean (INEM) aurkitzen ez diren langileak dira. Langile onak. «Ez dira hiriburura joaten erosotasunaren bila, lan fuerte egin behar den tokira etortzen dira, arazorik gabe, eta langileak dira». Nagusiek ere ederki asko aprobetxatzen dute egoera. Fontellasko txerritegi batean bost hi-

labetez, asteburuak barne, lan egindako marokkoar bati 50.000 pezeta ordaindu zion nagusiak, eta izan dira eguneko 800 pezeta kibratu dutenak ere.

Batez besteko jorjala eguneko 600 pezetakoa zen iaz. Horren


aurrean, administrazioak ez ikusiarena egiten du. «Sindikatuak ez dute tutik ere esaten» dio SOS Arrazakeriako partaide batek, «isun ederra jasoko bailuke nagusiak, eta krisialdi garai honetan, produktua nahitanahiez atera beharra dago. Nekazariak ere ez dira gogor zigortu behar, baina badago gehiegikeria nabarmena».

Joan den astean udaletxean egindako bileran iritzi ona atera zuten magrebiarrek zein beraiekin lan egindakoek, eta neurri polizialak ia denek gaitzesten ziztuztela ikusi ahal izan zen. Hala ere, garbi dute bertan arazoa konpontzea ia ezinezkoa dela. «Tuteran ezin dugu etorkinen arazoa konpondu», dio Elena Magan Caritaseko laguntzaile sozialak, «baina jarrerak aldaraz ditzakegu». «Irtenbidea ia utopikoa da», Juan Joseren ustez. «Jo dezagun hemengo arazoa konpontzen dugula: bada, orduan, gehiago etorriko lirake, beste tokietan hemen baino okerrago baitaude. Soluziobide bakarra jendearen tolerantzia da». Xenofobia, arbuioa eta antzeko hitzak erabiltzen hasiak dira frankotan Tuteran, baina arrazakeria dagoenik ez dute uste. «Atzerritarrari xenofobia izatea da», dio Juan Josek. «Txirotasunaren aurkako arrazakeria da», aipatzen du Guillermok, erakundeko beste partaideak, «eta, azken finean, ezezagunari beldurra».

Fontellaseko txerritegi batean bost hilabetez lan egindako marokkoar bati 50.000 pezeta ordaindu zizkion nagusiak.



Harrera inon bezalakoak izan dutela diote magrebiarrek, baina arbuioa sumatzen hasiak dira.

Tuterako  magrebiarrekin arazoak

mintzoak



Tuteran 200 bat etorkin daude egun.

A.B.

«Ez itzuli etxera, seme»

A.B. / TUTERA

«Amarekin hitz egin nuen lehengo egunean, eta hiru urte etxetik kanpo egon ondoren, inondik inora ez itzultzeko esan zidan. Hemen gelditzeko. Hori oso gogorra da». Karim Tuterara heldu baino lehen Frantzian ere ibilia zen eta Algerian dauden arazo politikoez mintzo da, etsita. «Ez dago askatasunik, ez dago etorkizunik. Orain ezin naiz nere herrialdean bizi. Nere herria da, baina ez du nire alde deus egiten». Bera berberiarra da —«Algeriako euskaldunak», dio barrezka—, eta azken asteburu honetan Tuterako hiru tabernatan galerazi diote sarrera. «Mila pezeta kobratu nahi zidaten berez sarrera dohainik duten pubetan». Lehengo asteburuan bakarrik taberna batean gertatu zitzaion bazterketa, eta SOS Arrazakeria taldeak salaketa paratu zuen.


Bera da egun Tuteran lanean ari diren algeriarretako bat. Inork ez daki zehatz-mehatz zenbat diren, kopuruak aldakorak baitira, uzta garaian dagoen lanaren ara-

bera, baina guztira 200 izango direla aipatzen dute. Horiarik erdiak edo ari dira lanean. Karim, Naser eta Rachidekin batera, astean lau aldiz antolatzen diren gaztelaniako ikastaroetara azaldu ohi da, eta gero eta kezagarriagoa egiten ari den egoerari buelta emateko «denon erantzukizuna» aipatu du.

«Hemengo egoera toki orotan gertatzen denaren antzekoa da» berretsi du Rachidek, algeriarra hau ere, baina arabiarra eta toki frankotan ibilitakoa. «Etorkinak gara, gizartetik kanpokoak beraz, eta etxebizitza eta lan arazoak ditugu. Gainera gutako batzuek lapurretan egiten dute. Egoera ez da erreza. Hala ere, badago jende

asko laguntzeko prest, hemen gizarteratu gaitezen eta asko egiten dute gure alde».

Hirurak gazteak dira eta ikasketadunak. Dotore eta gizalegezkoak tratuan eta hizketan ez dute baratza lanetara etortzen diren ohizko etorkinen planta. Hasieran susmati, konfidantza hartzen dute elkarrizketa bitartean, eta Rachidek argazkirik nahi ez badu ere, bera da gehien hitz egiten duena. «Hemen dugun arazorik



Karim Frantziatik etorri zen Tuterara.

J.L.

handiena paperak dira, eta arazo handia da, izan ere. Hori gabe ezin gara kanpora atera, eta teoriari ezin dugu lanik egin».

Bera eta Naser txabola batean bizi dira Tuteran inguruan, eta Karimek pisu bat alokatzea lortu zuen. Lorpen handia eta estimatua, hori baita beste arazo nagusienetako bat. Jendeak, mesfidantzaz, ez dizkie pisu hutsak alokatzen. «Beraiekin joan izan gara askotan pisu bila» azaldu du Crisantos Santamarina SOS Arrazakeriako partaideak, «eta prezioan eta baldintzetan adostasuna lortu ondoren, magrebiar batendako dela esaten badugu, atzera egiten du jende askok. Gehien jarrera da, gainera». «Nik ez dut ulertzen» dio Karimek, «pisu asko hutsik baitaude. Ez dakit arrazakeria den edo ez, baina horrela da».

HALA ERE TUTERAN POZIK

Hala eta guztiz ere, pozik daude Tuteran. Beste tokietan aurkitu dituzten baldintza eta ja-

Kapanak

● Uterga. Maiatza. Bistan den muino batean adar bat ezarriko dute. Etxolaren antzik ez izanda ere, kapana esaten zaio. Hori ikustean artzainek badakite ezin dutela artaldea mahastietan sartu, beste toki batean bizimodua bilatu behar dutela.

Nahiz ardantzirik ez izan, Añezkarren badute kapana bat. Hemen bere zeregin sotziala galdu du, baina benetako etxola bat da. Lehenagokoak bezalakoa da, harrizkoa, pertsona bat izkutatze modukoa. Lehorra ematea komeniko litzaike. Filoxerak ardantzak akabatu zituzenez geroztik, erromesei babesa emateko balio izan du.

Elkanon ez dago ez ardantzirik, ez harrizko kapanarik. Hor badakite akerra dela mahastiaren etsaitan txarrena, eta propio horretaz begiratzeko, lehenago plastikozko etxola batzuk ezartzen zirela, kapanak izenekoak. Hortxe izaten ziren jagoleak, eta frankotan egon ez arren, kanpotik hor zegoenentz jakiterik ez zeukaten, horren beldur ez zen inor mahastian sartzen.

Grezia. Makina bat urte Kristo aurretik. Utergan bezala, udaberria sartua da dagoeneko. Hera Jaikosak harrapa ez zezan, Dionisios izeneko mutil txar bat bildots bilakatu zen. Kozkortzerakoan ez zaio bat ere gustatzen mahastiak adina. Mahastien Jagole Nagusi izendatu dute, eta horren izenean akera bat akabatu. Matak horretan, jakina, aho beteka edaten da ardoa, eta halako batean partaide batek Dionisiosekin berarekin mintzatzen duela aitortzen du. Mistikaren hasiera. Akerraren grekeraz 'tragos' esaten da, eta festa horietan mozturoririk jendeak kantatzen zuenari tragedia izena ezarriko zaio. Akerraren heriotza, ardoa, eta antzerkia. Erreligioaren hastapena.

Baztanen, zikiroa akabatzen delarik, zera kantatzen da:

Hegoa heldu da menditik/zorte gaixtoz dena beterik/ Aker beltza bere tronutik/irri-parrez leher eginik/gauz gau/larrebil gaitzen ixterbegiz/mendeka tzera. /Xitximurru gure aterbe/huraz bestaldean Luzaide/ Xitximurru deskantxu gaude/ isoparen bel-

durrik gabe/ Jaun beltza/ goait dago/Zatozte ba harekin/libertitzera.

Erroman bakanalak debekatu egin zituzten, lizunkeria nagusi bait zen Baco-ren festeetan. Euskal Herrian, XVI. mendeko ihauterietako ospakizunetan arazo sozialetan parte hartzen zuten frankotan, eta buruzagiek debekatu egin zituzten. Epaileek kanpotarrak izanik gehienetan deabrukeriatzat jotzen zuten euskaraz egiten zen edozein gauza. Pierre d'Langre-k bere 'Tableau de




l'inconstance de mauvais anges ou demons' (Parise, 1612), euskal sorginek zerako otoitzak deabruari kantatzen zizkiotela aitortzen du: *In nomine Patrici/Aragueaco, Petrici/Castellaco Ioannicote/egidac ipurdian pot.*

Caro Barojaren ustez, kopia bat besterik ez da, kriminalizatutako kopia xume bat besterik ez. Akerraren mintzateak urrunegi eraman gintzake. Begi bistakoa da elementu berak agertzen direla, akerra, gaua, mistika sexuala, erritua...

Euskal Herrian Grezian adina nahasten dira, bada, akerra, ardoa, koplak eta mozturoririk dabilen jendea. Eta hemengo tragediak eman ote zuten Grezian eman zuten pausua? Norbaitek Edipo baten bizitza kontatu al zuen? Kasualitatez Nafarroako euskal Parnasoan badira Utergako eta Elkanoko idazleak. Ez da harriztekoa Añezkarreko idazle tragiko bat galdu izana.

Baina zikiro, tobera eta kopia zahar horiek ezin dira konparatu kapana baten zentzu tragikoarekin. Badira lekuak eta objektuak, izatez, berez, beldurra eta mistizismoa gizakiaren baitan sortzen dituztenak, ahalmen numerikoa daukaten lekuak eta objektuak erreligio aferetan adituen esanetan. Aralar mendia horietako bat omen da. Grezian Kreta irla. Objektuen artean Iruñerriko kapanak zerrenda zerutiar horri erantsi beharrekoak dira.

● **Juantxo Urdiroz** Markalaingo alkate ohia



Naser makina bat tokitan izandakoa da.

J.L.

rera kaskarren seinale garbia. Rachid eta Naser herri frankotan egon dira Algeriatik atera zirenetik, eta Erriberako hiriburua onenetakoa dela diote. Arazoen errua elkarren ezagutza faltari leporatzen diote. «Jendeak gutaz gauza zikinak aditzen ditu, gehienak faltsuak, eta gauza berri denez» —lehendabiziko magrebiarrak duela hiru urte heldu ziren Tuterara— «ez dakite nola amaituko den dena».

Arazoak ez dira bakarrik tabernetan edo pisuetan, lanean ere gutxiago kobratzen dutelako: 480 pezeta ordutuko, bertakoei 700 inguru ordaintzen badiete ere. «Lan gogorra egiten dugu, egunero hamar orduz» dio Karimek, «eta besteek nahi ez duten lanean ari gara».

Hala eta guztiz ere, lapurretek

eragin dute egoera nahasia «neurri batean ulertzen» dutela diote. «Nere herrian kanpotik etortziko jendea lapurretan ariko balitz gauza bera pentsatuko nuke nik, eta, beraz, horrelako erreakzioa izatea ulertzen dut.

Egun batean. Baina egunero egunero ulertzea zailagoa da...». Rachidek, ordea, jendea benetan demokratikoa ote den erakusteko parada dela uste du. «Hemengo jendeak kanpora atera behar izan du askotan, emigrazio handia jasan behar izan du.

Gu egoera berean gaude orain, familiarik gabe, sutondoaren berorik gabe, lagunik gabe... Hori oso gogorra da. Horregatik, ez dut ulertzen jendearen erreakzioa. Orain bada aukera jendeak benetan demokratikoa den erakus dezan».

Gazteendako Zokoa



XAKEAN

Pedro Viñal (2.275 ELO) txurien eta J.J. Mindegiaren (1.865 ELO) arteko partida.

1. d4, e6; 2. Zf3, c5; 3. e3, d5; 4. c3, Zc6; 5. Ad3, g6; 6. bZ-d2, Ag7; 7. De2, gZ-e7; 8. h4, c4; 9. Ac2, e5; 10. Ze5, Ze5; 11. e5, Ae5; 12. Zf3, Ag4; 13. e4, 0-0; 14. Ah6, Ge8; 15. Gd1, Da5; 16. Efl, aG-d8; 17. De3,d4. Orain joko distiratsua hasiko da. Bai batak bai besteak ezkutuko asmoz beteriko joko-erakusketa eginen dute. 18.d4, Ad4; 19. Gd4, Zf5; 20. Df4, Zd4; 21. Df6,Ze6; 22. Ze5, Ae2 xa; 23. Eg1. Kontuz honekin: 23. Ee2, Zd4 xa; 24. Efl, De5. Beltzek egoera konponduko lukete. 23...., Dc7; 24.f3, De7; 25. Zg4, Ad3. Beltzek posizioa oso korapilatsua zuten, eta jokaldi honekin ez dute asmatu. 26.Aa4,b5. Alferrik ematen dute peoia. 27.Ab5. Dc5 xa; 28. Ac3, Dc7. Ez zegoen Db5 egiterik, 'Zh6 xa' zetorelako. 29. Ae8, Ge8; 30. h5, g5; 31. Zh6 xa, Ef8; 32. Zf5, Eg8; 33.Ad4. Matea ekidiezina da.

Bertsoak

Eskale eta aberats baten arteko bertsoak. Tafallako ikastolan abestutakoak.

Aberats jator hori
saiatu botatzen
zure monedatxo bat
ari naiz eskatzen
diru sobera duzu
ta ni hemen hiltzen
zu bezalako asko
hemen da sobratzen

Zertako nahi dirua
joateko pubera
han mozkortu ta gero
semea jotzera
labana hartu ondoren
sartu bihotzera
nahi duzu izatea hori
bizitzeko era?

Ainara Berrotaran

Jenero Xumekoak

Peligro Benta

Laztana, musu bat eman nizulako, nire amak zigortu ninduen. Inporta ez bazaizu, laztana, inporta ez bazaizu, bueltatu nik emandakoa.

JEREMIAS ERRO

Ilargiaren konjuroa

LAURA MARCOS

Orain dela urte asko Indian gertatutakoa kontatuko dizuet. Ahoz aho pasatu da kondaira hau aintzineko indiarretatik guregaino, eta hori bakarrik denez, kondaira bat, zuek sinistu dezakezu edo ez, baina nik sinistea aholkatzen dizuet, berriz gertatu ez dadin. Beno, baina doala mailua iltzera, ez zaitezte berantetsi.

Indira neskatxo polit bat zen, hain zen polita, inguruko herri guztietan bere edertasunaz hitzegiten zela. Baina senargairik ez zuen. 'Ipuinetako printzearen' bila zebilen, amets egin zuen bezala, egun batean herria bere bila joango zena.

Egun batean zaldien hotsa entzun zen, eta jende guztia lehioetara atera zen. Indira, korrika, joan zen zaldiak zeuden lekura, bere ametsetan horrela gertatu baitzen hainbeste espero zuena. Uste bezala, aberatsen zaldiak ziren horiek, eta ez dago ezer esan beharrik zaldunei buruz. Gizon bat zalditik jeitsi eta honako hau esan zuen: «Lahadua printzea ezkongai dago, eta herri honetara etorri da neska polit baten bila. Neska politik baldin badago, esaidazue eta bere bila joango gara». «Ez dago horren beharrik —esan zuen Indiraren

amak—, hementxe bait daukazue inon aurkitu ezin dezakezuen neska politena». Eta Indira aurrerantz bultzatu zuen. Zaldi gainean zegoen printzea lurrera salto batez jeitsi zen Indiraren edertasunaz liluraturik. «Bihar jauregian ospatzen den dantzan ikusiko gara —esan zion—, 10etan hasten da». Hau esanda, zaldi eta zaldun guztiak desagertu ziren hautsezko hodei bat atzean utzita.

Indira kezkatuta zegoen, jauregira joateko ez baitzuen soineko dexterik. Herriko neska guztiak beren soineko ederrenak eskeini zizkieten, baina ez zegoen Indirari jauregira joateko aproposa iruditzen zitzaionik. Egun guztia negar egiten pasatu zuen, eta hau ikusita, amak ilargiari eskatzea proposatu zion. Indirak, oso haserre, hau bota zion: «Baina ba al dakizu zuk ze arriskutsua den ilargiarekin jolastea?» Noski bazekiela. Baina printzesa izateko beste aukera ez zuela izango esan zion, eta Indirak amore eman zuen: gau hartan bertan mendira igoko ziren ilargiari konjuro bat egitera.

Gaua ailegatu zen eta ama, bost emakume zaharrekin, igo zen mendira. Gau guztia pasatu zuten ilargiari soineko bat eskatzen, eta ilargiak hurrengo egu-

nean Indira esnatzerakoan urre eta zilarrezko soineko bat izango zuela esan zuen. Baina egun bat bakarrik eduki zezakeen; beraz, jauregitik eguzkia atera baino lehen itzuli behar zuen. Bestela, egindakoaz damutuko ziren. Hurrengo egunean Indira esnatzerakoan, inoiz ikusi zuen soinekorik politena jantzita zeukan. Pozaren pozez saltoka hasi zen, baina bere amak aurpegi serioarekin ilargiak esandakoa kontatu zion. Indirak obeditzea zin egin zuen. Gauean karroza bat joan zen Indiraren bila.


Gau osoa dantzatzen pasatu zuten Indira eta Lahadua, baina laister eguzkia ateratzeko zorian zegoen. Indirak joan behar zuela ean zion, eta Lahaduak beste egun bat geratzeko eskatu zion. Indirak ezin zuela negarrez esan zion, baina printzeak ez zuen amore ematen. Zaldi bat herrira itzuli zedin eskatu zion, eta printzeak hori egiteko intenziorik ez zuela ikustean, korrika jauregitik atera zen.

Eguzkia atera baino lehen mendian egon behar zuen, baina bide erdian zegoela, eguzkia ateratzen hasi zen. Hurrengo egunean hilda aurkitu zuten Indira, urkatua, soinekoa lepoaren inguruan zuelarik.



KAZKARROAN

HITZ GURUTZATUAK



EZKER-ESKUIA: 1.- Multzoa, andana. 2.- Gar. Poztu. 3.- Erranak, Estrontzioa. 4.- Ikusmenik ez duen edo galdu duen pertsona. Euskaraz ez dugun hizkia. 5.- Interjekzioa. Iparretarrak. 6.- Xume. Moduak. 7.- Suari dario, Ezkabarteko herria. 8.- Inuxentea, Bizkaieraz, omen. 9.- Iparraldean, denboralea.

GOITIK-BEHERA: 1.- Bost eta bat. (Infin.) Akitu. 2.- Sustatzearen egintza eta ondorioa. 3.- Lehenengo, Kontinente bat. Asti ezaguna. 4.- Aginte, Gipuzkoako herria. 5.- Edo. Ordaindu gabe. 6.- Aintzira. (Infin.) Ekarri. 7.- 501. Jira. Bat. 8.- Nahigabea. 9.- Oinarrizko edaria. Portu.

N-73



Leire

Baten batek *Urratsak* errelebean argitaratutako Euskal Herriko karta ikusi izanen du. Itxura dotorea eta benetan erakargarria mapazaleentzat. Tamalez, Nafarroako toponimiaz den bezain batean ez dira oso fin ibili. Esate baterako irakurleak *Leire* ez du aurkituko eta bai, ordea, *Errando Mendikatea*. Egileek Fray Ramon Molina fraideak idatzitako liburua (*Panorama* bilduman) irakurri ondoren liluraturik geldituko ziren *La Sierra de Errando* ikusi zutenean eta dudarik egin gabe izen zoragarri hau euskararako errekuperatu nahi izanen zuten. Berriz ere izenik arraroena eta inork ezagutzen ez duena euskararentzat egokiena omen da. Fray Ramonek, telefonoz, dokumentazio zaharrean izen arrunta dela esan dit baina, hala ere, praktikoa izan nahi duen euskaraz eta erdarazko edozein planotan ez luke tokirik izan behar. *Errando* (ez ahaztu *Errandona* edo *Errandorena* abizena), bestaldetik, *Fernandoren* aldaera da, *Hernando* (Hernandorena) bezalaxe eta ez dirudi zaharregia denik. Dena den inor ez dadila harritu hemendik aurrera izen hau aditzen badu asteburuko giputz euskaldun baten ahoan.

Leire izena, orain arte, Karlo-magnorekin, Gaskuñako ibai batekin eta izen zeltekin lotzen zen. Monastegi dotore bati dagozkion lotura egokiak dira baina, egia esan, fundamentu gutxiokoa. Izenaren jatorria argitzeko joan gaitzen Zaraitzura, hango euskaldunek mendizerrendari *Lexuri* esaten ziotelako. Alfonso Irigoienek dionez, leku-izena *Legionarius* hitzari lotua dago. Harrigarria gerta badaiteke ere *Legionarius* hitza euskal fonetikaren era honetara moldatuko litzateke, le(g)io(n)ari(um) hain zuzen ere Erdi Aroan dokumentatzen diren *Leioris*, *Legior*, *Leguri*... aldaeretatik oso hurbil. Erdarazko bilakaeran berriz *Leyenero* genuke. Teoria honen arabera, eta neri zentzuzkoa iruditzen zait, *Legionarius* izeneko pertsonak geroago monastegiaren kokaleku bilakatuko den finikaren bati eman zion izena. Euskaldunek izen hori beren ahoskera moldatu zuten eta *Lexuri* gelditu zen azkenean Espartzan eta *Leire* bestaldean. Azken forma hau, nahiz eta berriago eta fonetikaz erromantzetik hurbilago, hobetsiko dugu denon ezaguna delako.

MIKEL BELASKO

Bizi Bizian

Asteazkenez geroztik eta hilaren 26ra arte kontsumoa eta ekologiari buruzko erakusketa dago zabalik Iruñeko Antoniutti parkean. 'Ekokonsum', erakusketaren izenak kontraesana

dakar bere baitan, kontsumoak eta ekologiak bateraezinak dirudite eta. Erakusketak ez du bestelakorik erakusten: ez dago gutxi kontsumitzea baino kontsumo berdeagorik.

Kontsumo berdea Antoniuttin

IRUÑEA


Eroskik antolatutako erakusketa dohainik da eta bertan ez da ezer saltzen. Iruñean baino lehenago Bilbon eta Gasteizen egon da; hemendik Donostiara eramango dute eta irailean Tuteran izango da berriro. Aurreneko Ekokonsum erakusketa duela bi urte egin zen. Orduan ere ekologia eta ingurugiroa izan ziren gai nagusiak, baina planteamendu orokorragoekin. Oraingoan, berriz, gauza praktikotara jo dute antolatzaileek. Leonor Astigarraga arduradunak dioenez, «Amazoniaz hitz egitea ongi dago, baina nork berak etxean egin dezakeena azaltzea eraginkorragoa izan daiteke. Horregatik, bigarren erakusketa honetan aholku praktikoak eskaintzen ditugu batipat, eguneroko jokaerak pisika bat aldarazteko asmoz».

Eroskiko kontsumitzaile elkarrekin egindako inkesta baten arabera, ingurugiroa bere bezeroen lehentasunen artean agertzen da. Bezeroei beren kezka nagusiei buruz galdetu zietenean, hauek osasun zerbitzuak aipatu zituzten aurren, elikadura bigarren eta ozonoa hirugarren. Ez da harritzekoa, erakusketak jendea erakartzea. Zabaldu zen egunean behintzat gainezka zegoen.

Erakusketaren planteamendua oso sinplea da. Etxe baten itxura du, bere sukalde, komuna, egongela eta garajearekin. Etxearen zatiak marraztuta daude eta marrazkien gainean aholku-aginduak agertzen dira. Egongelan, esate baterako, berogailuari dagokionez 18-20 gradutik gora ez erabiltzeko gomendatzen dute. Sukaldean zaborra bereiztu behar dela eta ur beroa eta garbikariak ahalik eta gutxien erabili behar direla gogorarazten dute.

Sarreran liburuxka bat banatzen dute eta bertan azaltzen da zer-nola kontsumitu daitekeen gutxiago. Informazio hau ordenagailu pantailetan ere aurkitu daiteke, euskaraz eta gazteleraz. 'Etxearen' erdian Jose Ibarrola eskultoreak egindako oihana dago eta honen alboan beste maketa batek uraren zikloa erakusten du.

Atzealdean zinema moduko areto bat prestatu dute eta orduerdiro hogeitun minutuko emandaldia eskaintzen dute. Bertan historian zehar ingurugiroari egin zaien kaltea azaltzen da, aintzinatik hasi eta XX. mendera arte. Horrela, Euskal Herriari gaitasun iturririk iturria izan zela, baina egurra lortzeko espe-



Aholku praktikoez beteta dago Eroskiren erakusketa hau.

JOXE LACALLE



Hilak 26ra arte izango da zabalik.

J.L.

zie asko arriskuan jarri zirela eta balearen ehiza trinkoegia izan zela erakusten du.

Erakusketa guztiak bost gai dituzten ardatz nagusiak: energia, zaborra, zarata eta kotxea. Urari dagokionez, munduan dagoen uraren % 0,2 bakarrik erabili dezakegula eta hori zaindu beharra dagoela azpimarratzen du. Energiaren atalean, gaur egun argia izateko elektrizitatea ezinbestekoa dela dio, baina berotasuna lortzeko ez du gomendatzen. Gasa goraitzen da energiari garbiena bezala. Zaborrari dagokionez, Iruñerria oso aurreratua dagoela

Erakusketak oso planteamendu sinplea dauka. Etxe baten itxurakoa, bere zati bakoitzean agertzen dira aholku-aginduak.

uste du Astigarragak. Hala ere, zaborra bereizi eta birziklatu beharra azpimarratzen da. Jendeak zarataren arazoari kasu handirik ez egin arren, erakusketan sarri aipatzen da munduko herri zaratasuenetakoa dela gurea. Izan ere, gure hirietan batazbesteko zarata 80 dezibeliokoa da eta, adituen arabera, 65 dezibeliotik gora kaltegarria izan daiteke. Azkenik, kotxeari buruz dagiguna gogorarazten da: ezinbestekoa denean bakarrik erabili behar dela, ez hirian lau metro egiteko. Eta katalizadorearekin, jakina.

«Aizu, ba al zenekien...»

IRUÑEA

...Erabilitako olio litro batek milioi bat litro ur kutsatzen duela?

...Etxean bainua hartzen duzun bakoitzean 150 litro ur erabiltzen dituzula eta bainatu beharrean dutxa erabiliz gero 120 litro ur aurreztuko zenituzkeela?

...Paper tona bat egiteko lau hektarea zuhaitz behar direla?

...Japoniarren atzetik, geu garetla zaratasuena?

...Famili batek sortzen 1.500 kilo zabor urtean dituela eta horien laurdena birziklatu daitezkeela?

...Pila bakarrak piszina bateko ura kutsatzen duela?

...Munduan 800 milioi kotxe daudela eta kotxeek eragiten dutela hirietako kutsaduraren % 60?

...Birziklatutako plastikoko kilo bakoitzeko bi litro petrolio aurrezten direla?

...Berogailua gradu batez jaitsiz gero, energiaren % 6 aurreztuko zenukeela?»

Paco Ocaña

argazkilaria

«Erretratatzeko ezagutu egin behar da pertsona»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

EGUNKARIA.— Orain arteko zure lanean paisaiek, naturak eta eraikuntzek izan dute islada, pertsonarik gabe. Zergatik, bat-batean, 70 erretratu?

PACO OCAÑA.— Ez dizut esango orain ateko lanaz aspertuta egozagatik, baina ia-ia. Beti hiri edo herrietako argazkiak egiten aritu naiz, pertsonarik gabe, eta batzuetan argazkiak hotz samarrak ateratzen ziren, zerbait gehiago eskatuko balute bezala. Argazki horiek gizakumeari lotuta zeuden, jakina, bere lanaren eta eginkizunaren ispilua zirelako, baina fisikoki ez zen hori agertzen. Nik banekien, jakin ere, horri eutsi egin beharko niola noiz-bait, eta esan nuen: 'Bada garaia', eta horrela izan zen. Hasieran frogatzen ziren lagunekin, estudioan, baina ez nituen gauzak oso garbi, eta utzi egin nuen. Ondoren heldu nion berriro, eta hau da emaitza.

EGUNKARIA.— Argazkigintza mota aldatzen zein arazorekin topatu zara?

OCAÑA.— Hasteko, pertsona baten edo gauza baten argazkiak oso desberdinak dira. Gauza batekin ordua, argia eta anguloa aukeratu daiteke, egoera. Pertsona batekin ezin da, baldintzak zeharo bestelakoak baitira, segun eta zer emaitza lortu nahi duzun. Nik erabaki nuen pertsonaia bakoitza giro egokian kokatzea, beren giroan, gustura egon zedin. Orduan ez daukazu argia edo tokiak aukeratzetik. Hara joan, eta soluzioa eman behar zaio arazo bakoitzari. Eurria, eguzkia, iluntasuna, denetarik aurkitu dut.

EGUNKARIA.— Eta dena bere ho-

retan uzteak, gehiago prestatu gabe, ez al zizun eragozten nahi zenuen erara egitea?

OCAÑA.— Jakina, batez ere pertsonaia batzuekin. Gainera, hor bazegoen beste arazo bat. Batzuk ezagunak nituen, baina beste asko ez. Orduan oso zaila zen esatea zehatz-mehatz nahi zenuena, mesfidantza baitzuegoen elkarrekin. Hori puskatu beharra ze-

Onenen artean, maisuen artean, ez dago erretraturik egin ez duen argazkilaririk. Bizia da, eta horrekin jokatu behar da».

goen, eta horregatik bere lekuan uztea.

EGUNKARIA.— 70 pertsonaia aukeratzea nola izan zen? Gehiago zenituen?


OCAÑA.— 70 gutxi dira. Nik nuen zerrenda ia bikoitza zen, baina jakina, moztu beharra zegoen. Horregatik sailkapena egin beharra zegoen. Orduan jende askorekin hitz egin nuen, aholku bila, eta jende asko kanpoan utzi behar izan nuen.

EGUNKARIA.— Erretratuak, argazkigintzaren barruan, baditu jarraitzaile famatu eta sonatuak: Schommer, Leibovitz... Arlo berezizat har daiteke, argazkigintzaren barruan?

OCAÑA.— Onenen, maisuen artean, ez dago erretraturik egin ez duen argazkilaririk, eta batzuk bereziki emanda daude horretara. Erretratu oso interesgarria da,

Nafarroako kulturen jarduten duten 70 pertsonaia erretratuen erakusketa paratu berri du Nafarroako Museoan Paco Ocaña argazkilaria. Orain arte egindakoaz erabat aparte —«horren

beharra» senditu zuela dio—, artisten berezko giroan egindako argazkiak dira, berezitasun handirik gabe, baina Nafarroako kulturen, bertan lanean diharduten artisten ispilu, beti ere.



JOXE LACALLE

gero eta interes handiagoa dauka ongi agertzeko. Pintoreei edo idazleei, ordea, ez zaie hainbeste axola.

EGUNKARIA.— Egunotan Iruñean dago Juanxu Rodriguez argazkilaria erakusketa. Zer iritzi diozu haren lanari?

OCAÑA.— Oso interesgarri. Donostian, Bilbon eta Euskal Herria osoan zehar ibili zen erakusketa batean egon nintzen berekin, eta hori da nire erreferentzia. Badakit azkenean erretratuak buruz zerbait egiten ari zela. Hala ere, garbi dago bere lana —nazioarteko erreportaiak—, berezia eta oso bestelakoa dela. Ni ez naiz inoiz sartu, beste jarrerarekin joan behar delako. Gertatzen ari dena kontatu behar duzu, eta zuk ez duzu parte hartzen. Nire lanari, ordea, nire ikuspuntua gehitzen diot, eta emaitza desberdina da.

EGUNKARIA.— Artearen ba-

rrian, argazkigintza da arlorik ahaltsuena edo estimu gutxien duena. Nola bizi duzue hori argazkilariek?

OCAÑA.— Hori da argazkigintzaren borrokarik handienetakoa. Beste garaietan, batez ere, pinturarekin borrokatu behar zuten. Gaur egun ere pintura da arte klasikoa. Baina pinturak, frankotan, bere bidea aldatu behar izan du, argazkigintzaren presioa dela eta. Argazkigintza agertu baino lehen errerealismoa zen nagusi, baina gero hori makina batek egiten zuen. Orduan sortu ziren inpresionistak, argiaren garrantzia... eta inpresioa, intuizioa nagusitu zen. Orain ez da zalantza jartzen argazkigintza artea denik, baina oraindik badaude desberdintasunak. Izan ere, argazkia biderkatu egin daiteke nahi adina, eta pinturak badu oraindik originaltasunaren dohaina.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERGA

